

## **ATZERAPAUORIK EZ LGBTI+ PERTSONEN ESKUBIDEETAN**

---

Atzerapausorik onartuko ez dugula ez da soilik lelo bat. Jarrera politiko argi bat da. Egiteko asko geratzen dela argi izanda ere, lortutako apurra ezabatzea etorri nahi duten indar ultrakontserbadore eta faxisten aurrean askatasunaren aldeko horma bat eraikitzeke konpromisoa da gurea. Hemen zeuden, badakigu, haiek hil baitzuten Francis, baina haien gorrotoaren gainera eraikitzen jarraitu dugu. Kanean eta instituzioetan.

Trans legeak lortu ditugu, edo LGBTI+ kontseilu munizipalak. Kaleak gureak egin ditugu eta Moio oroitzen duen plaka jarri. Eraso LGBTI+ bikoien aurrean elkartu gara, oihukatu dugu eta bisexualitatea bizi dugula aldarrikatu dugu euskaraz. Hori eta askoz gehiago egin dugu, bizitu dugu, konpartitu dugu eta borrokatu.

Baina hemen dira, beldurrik gabe esaten eraiki dugun hori, garen hori desegingo dutela. Ez dagoela eskubide atzeraezinik, ez daukagula eskubiderik. Eta guk, Ekainaren 28 honetan, garena, lortu duguna harro defendatuko dugula esatera gatoz.

Iaz genioen bezala, honen guztiaren aurrean, antolatzea eta borrokatzea ezinbestekoa dugu. Gure kasuan, instituzioetatik politika publiko integral eta sendoak, perspektiba feministan oinarritutako zerbitzuak, babes kolektiborako eta autodefentsarako mekanismoak ezartzeko bideak... eraikitzeke konpromisoan berresten gara. Aldi berean, LGBTIQ+ mugimenduaren eta instituzioen arteko zubi eta elkarlanean sendotzeko, erabaki konpartituetarako bideak ezartzeko lan egingo dugu. Faxismoaren aurrean, bakoitzak beretik, eraikitzen jarraituko dugulako. Lege gehiago, baliabide gehiago, espazio gehiago.

Horregatik Agoizko udalean LGBTIQ+ mugimenduaren eta instituzioaren arteko elkarlana sustatzeko eta bertatik, herrialdeko dinamika ezartzeko konpromisoa hartzen dugu. Erronka konpartitua da aurrean duguna, eta bakoitzari dagokion arduratik eta espaziotik, LGBTI+ politikak eraikitzeke ezinbestekoa da honelako gunea.

Honetaz gain, gure herrian LGBTIQ+ mugimendua izandako papera eta historia aitortzeko lan egingo dugu, haiengatik baikaude egun gauden tokian. Besteak beste, Ekainaren 10a, Erreterian eraildako Francis Vadillo trabestia erail zuten eguna trans memoriaren egun izendatzea eskatzen dugu. Bere erailketak Euskal Herriko LGBTIQ+ mugimendua bultzatu zuen modu nabarmenean.

Amaitzeko, dei egiten dugu Ekainaren 28aren bueltan antolatu diren ekimen eta mobilizazioetan parte hartzeko, eta amaitzeko, LGBTI+ pertsonen bizitzak egunerokotasunean bizigarriak izateko, lan eta borrokatzen ari diren kide eta kolektibo guztiak zoriondu nahi ditugu, harrotzeko moduko mugimendua osatzen dugulako.